

SARRERA

Lehen Hezkuntzako garaian oinarrizkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektiboa errespetatzea, egoera berrien antolaketa ahalik eta modu naturalean mantenduz, haur bakoitza kontuan izatea beharrezkoa delako. Lehen Hezkuntzako ikasleek egoera berrien aurreikuspena behar dute, ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.

TXISPI ARTOAREN BIDEOA

Saio hasieran bideo hau ipiniko diegu ikasleei.

[Txispi etxez aldatzen da](#)

JARDUERA MOTA

Jarduera gidatua bideoarekin.

LEKUA

Gela.

EDUKIA

Moldatu egiten den ingurune naturala errespetatu eta zaindu egin behar da izaki bizidun ororen baliabide nagusia baita garapen ezin hobea eta osoa lortzeko.

Ingurune naturalaren zainketa eta tratu onak gainerako ekosisteman eragiten du modu onuragarrian, eta honek mesede zuzenak eragiten ditu pertsonengan zein animalian.

Hortaz, nekazaritza ekologikoaren garrantzia; lurra kudeatzeko sistema bat da, baliabide naturalak modurik egokienean erabiltzean oinarritzen dena, horretarako produktu kimiko sintetikoak edo genetikoki eraldatutako organismoak erabili gabe. Horrela lortutako elikagaiak ez dute lurra agortzen, natura zaintzen dute eta gisa-osasunerako ez dira berez kaltegarriak. Nekazaritza ekologikoa jasangarria eta orekatua da.

ZER LANTZEN DA

- Nekazaritza praktika ekologikoa zer den ezagutzea
- Emakume-gizonen betebeharra ingurune naturalaren kontserbatzaile eta landatzaile bezala
- Landare eta animaliangan jakin-mina, zainketa eta errespetua hasierako jarrerekin ingurune naturala mantentzeko
- Ahozko mezuen ulermena
- Pentsamendua, hausnarketa eta gauzen azterketa: irakaslearen galderen bidez
- Aniztasuna

MATERIALA

- Txispi Artoaren bideoa
- Ordenagailua /Arbel digitala

DESKRIBAPENA

Ikasle taldeari, bideoa jarri aurretik, Kutxa Ekogunera irteera bat egingo dutela azalduko zaie. Horretarako, irakasleak ikasleei lehenengo eta behin galdera irekiak egingo dizkie, saioa girotzeko; adibidez, Kutxa Ekogunea non dagoen, zer den edota zertara joango diren galdetuz.

Bakoitzak bere iritzia plazaratu ondoren, irteeraren informazioa partekatuko da. Tarte hori aprobetxatu daiteke nekazaritza ekologikoari buruz zer dakiten galdetzeko, eta bide batez haurren ezagutzaren abiapuntua ezartzeko. Horretarako, aipatzen den guztia orri zabal batean idatzi edo marraztu daiteke; gaiarekiko duten ezagutza islatzeko.

Ondoren, bideoa proiektatuko da eta honen ostean, ikusitakoari buruzko hausnarketa sortu daiteke. Horretarako aurretik idatzitakoa aztertu eta ikusitako gauza berriekin loturak egiteko aukera sortuko da.

Txispi izango da ikastetxea eta Kutxa Ekogunearen hari lotzailea ETA AURTEN BERTAN IKUSTEKO AUKERA IZANGO DUTE!